

DÔMES DE MIAGE

SAHARA BASAMORTUAREN ELURREZKO DUNAK ALPEETAN

Zeharkaldi honen ideia ia orain dela mende erdi sustraitu zen. Garai haietan 10 urteko mukizu bat nintzen eta Alpeekin amesten nuen. Gurasoek Gaston Rébuffaten *"Mont Blanc-eko 100 Igoerak"* liburua erosi zidaten, ibilbide mitiko bezain teknikoz josia. Bide erraz gutxi zituen, baina errazenen artean 17. ibilbidean Dômes de Miage mendien gailur-lerroaren argazki bat ageri zen, mendizale nafar batzuek urte hartan igotako Jannu gailur-lerroaren xarma zuen argazki baten antz handikoa. Egileak pasarte tekniko errazak zituela berresten zuen. Nik, mukizu izanik ere, jakin ba nekien nire bizitzan inoiz ez nintzela Jannu mendira igoko, eta zerbait egitekotan Dômes de Miage gailur-lerro errezetara igotzearekin konformatu beharko nintzela.


TESTUA



Luis Etxeberria

Donostiako La Salle ikasketxearen Sorondoa taldearekin bere lehenengo urratsak egin zituen Euskal Herriko mendietan. Pirinioak aitarekin ezagutu zituen. Alpe eta Andeetako hainbat gailur ere zapaldu ditu oinez eta eskiez. Gaur egun Bilbon bizi da.

45 urte geroago, gure lagun taldean urtero martxoa eta apirilaren artean 5 eguneko mendiko eskiko zeharkaldia non egingo dugun eztabaidatzerakoan, Danik telefonoz Mont Blancetik hurbil dauden 3000 m-ko mendi nahiko erraz eta eskia-garri batzuk daudela esan zidan. Honako izena aipatu zidan: Dômes de Miage. Buruak klik bat egin zidan. Telefonoa eskegi eta trastelekura joan nintzen Gaston Rébuffaten liburu mitikoa berreskuratzen. 17. ibilbidean hor jarraitzen zuen argazki eder hark. Elurrezko dunak diruditen mendi horietara joango ginateke, eta eskiekin gainera.



LEHENENGO EGUNA: Montjoie – Refuge des Prés

Biarritzeko aireportuaren croissant goxoak gosaldutugu goizeko sei etan. Lehenengo egunean, Lyonera joateko hegazkina hartuko dugu. Lyon 4 lagun eta lau eski pare sartzen garen kotxe luze bat alokatu dugu eta bagoaz Les Contaminesera (216 km). Hegaldi hau nahiko merke izaten da billeteak goiz erosten badira, eta hain goiz izanda egun berean Alpeetako aterpe batean lo egiteko aukera ematen du. Biarritzeko croissantak klasiko bat bihurtu zaizkigu geure urteroko mendiko eskiko irteera "luzean".

Eguerdiko 13:00tan Les Contamines eski estaziora heldu gara. Kotxea Montjoie telekabinaren azpian dohainik den parkingean utzi dugu. Indarrak hartzeko ondoan den *brasserie* batean *plat du jour* jan dugu: *lasagne alla bolognese* erraldoi bat. Digestioa egiteko, lehenengo igoera Roseletoko teleaulkia erabiliz egitea erabaki dugu aho batez. Berandu da, eguraldia kaskar dago eta mendiak lainotuta daude. Bihartik aurrera eguraldia hobetuko da eta Afrikatik

datorren aire masa bero bat iritsiko omen da Alpeetara (guk uste genuen fenomeno hau bakarrik Pirinioetan eta udan bakarrik gertatzen zela, baina mendikate guztiek daukate bere saltsa).

Telefonoa eskegi eta trastelekura joan nintzen Gaston Rébuffaten liburu mitikoa berreskuratzen

Teleaulkian gora heldu bezain laster abentura hasi da. Laino itxia dago, gps-an track pare bat grabatuta ditugu eta amildegi txiki batera doazela ematen du. Ez da ezer ikusten. Bikoteetan gertatzen den bezala, talde erdia norbaiti galdetzearen alde dago; beste erdia mapak eta gps-a itsuki jarraitzearen alde gaude. Dani mapa eta gps-zale izaten da, baina frantsesez hitz egitea asko gustatzen zaio eta eski estazioko langile bati galdetzeraz abiatu da. Langilea neska frantses lirain eta jatorra da, eta "amildegirantz" joateko esan digu. Kasu egin diogu, noski. Bidea ez da hain besterako, erlaintz bat besterik ez da eta 100



Tré-la-Tête glazirrera ere aldaketa klimatikoa iritsi da · ARGAZKIA: Daniel Ganuza

bat metro tente xamar jaitsita malda xume batetik igo gara hegoalderantz. 2175 m-ko altuerara heltzean, mendebalderantz hartu behar izan dugu malda tente batetik. Col de la Fenêtreren azkeneko metroak gogorrak dira, zeta motzak eta haize bortitza.

Lepo hartatik Mont Blanc ikusten omen da. Guk "Mendi Txuria" ikusi dugu, laino itxia dago. Refuge des Prés-erako jaitsiera zuzen-zuzena da. Andoni animatu egin da, aurrena jaitsi da eta besteok bagoaz atzetik erdi zorabiatuta, ez da tutik ere ikusten. Bat-batean erdi elurpean dagoen borda

baten itxura duen eraikin bat atzeman dugu. Aterpetxea omen da. Elurraz ia esalita dago eta ez dirudi inor dagoenik barruan. Josetxuk zorrotz begiratu nau: "Fijo erreserba daukagula?". Bordaren ate astuna jo dugu eta ireki egin da. Aterpezain jator batek "*bon soiree*" batekin barrura joateko esan digu. Borda barrutik berri-berria da, dena egurrez josia. Paradisu bat da kanpoko eguraldiarekin konparatuta, eta garagardoa eta guzti ditu gainera, *blonde* eta *brune*. Hau ospatu egin behar da.

BIGARREN EGUNA: Refuge des Prés - Refuge Tré-la-Tête

Bigarren eguna eguzkitsua atera da, eta atzo bezala mendian ez dugu inorekin topo egin. Zailtasunik gabeko igoera eroso eta polit batean Col du Bonhomme iritsi gara. Handik zuzen jarraituko bagenu Col de la Croix-en aterpetxera joango ginatke. Guk ezkerretarantz egin dugu, Tête Nord des Fours mendira igotzeko asmoz. Posible omen da lepotik zuzen-zuzen gorantz igotzea, baina iparrereko malda da, elurra izoztuta dago, eta mendiari buelta bat ematea erabaki dugu, eskubialdetik, malda xumeagoak baliatuz. Igoera luzea egin zaigu, baina paisaia mundiala da. Argi dugu iparralderantz ikusten hasi garen mendi erraldoia Mont

Blanc dela. Hegoalderanzko paisaiak eztabaida gehiago sortu du, mendi eder pilo ikusten dira (*Vanoise, Écrins...*), eta Piriñoetan ez bezala, ez gara ados jarri zein den bakoitza.

Gailurrean, hegoaldeko haize bortitzak jotzen du, oraindik hotz samar, ez dugu haize afrikarra inondik ere sentitzen. Igo garen bide beretik jaitsi gara, mendi malda guztiak geuretzat bakarrik dira, jaitsiera gozamina izan da. Bonhomme lepotik jaisterakoan eskubirantz egin dugu, eta itxita dagoen Refuge de la Balmetik pasata, eskiak motxilan jarri ditugu eta bagoaz oinez bailaratik Refuge de Tré-la-Têteko bidea hartzera.

Ez gara aspertu bidean. Politikaz, neskez, egin ditugun, egin ez ditugun, egingo ez ditugun eta egingo ditugun mendiez hitz egin dugu, denbora azkar pasatu da eta konturatu gabe Refuge de Tré-la-Têtera doan bide hasierako zubiarekin topo egin dugu.

Marielle guardesak esan digu bere aterpetxea ez dela beste "txalet berriak" bezalakoa

Bide ona bezain gogorra hasi da, ez dugu indarrrik ez politikariez ez neskez ezta mendiez ere hitz egiteko, eta gutako bakoitza

Gailurrari begira · ARGAZKIA: Daniel Ganuza



bere isiltasunean iritsi gara aterpera. Gaur ere bakarrik egongo gara. Marielle guardesak esan digu bere aterpetxea ez dela beste "txalet berriak" bezalakoa. Antzinakoen aterpeen xarma omen du, 80ko hamarkadan zeudenak bezalakoa. Entzuna geneukan Mariellek "nortasun handia" zeukala, eta baietz esan diogu buruarekin. "Xarma eta... hotza" pentsatu dugu. Logela eta bainugela isotermikoak dira, hau da, kanpoko tenperatura jeltatu berbera dute, 80ko hamarkadan gaudela dirudi. Hori bai, kristoren afari go-

xoa prestatu digu, eta hurrengo egunetako igoerei buruzko aholku asko eman dizkigu. Gau hotza baina atsegina aldi berean.

HIRUGARREN EGUNA: Refuge Tré-la-Tête – Refuge des Conscrits

Mauvais Pas pasarte mitikotik pasatu behar dugu gaur. Udan, Refuge des Conscrits-era igotzeko, pasarte hori ekiditen duen pasarela bat jartzen dute goitik, baina urrian kendu ohi dute. Mauvais Pas (bide txarra)

bira malkartsua da, elur-jausi arriskua du, baina atzo Mariellek esan zigunez, ez dugu hain "*mauvais*" ikusten, eta erraz pasatu dugu. Tré-la-Tête glaziarreko igoera polita da, eguzkipean dago eta elurra oraindik egonkor dago. 2300 metroko altuerara iristean, glaziarra utzi eta ezkerrera egin dugu, Conscrits aterperantz. Malda potentia da, eguzkia atera da, gogor jotzen du, eta orain bai, argi dago, Afrika urrunetik zetorren aire masa iritsi da Alpeetara. Elurra zopa-zopa egin da minutu eskasetan.

Tré-la-Tête glaziarren hasiera · ARGAZKIA: Daniel Ganuza





Elur krema Dômes-etako jaitsieran · ARGAZKIA: Daniel Ganuza

Aterpea berriztuta dago guztiz, baina ur-korronteen hodi-sistema galgatuta dute, urik ez dute iturrietan, ezta komunetan ere... baina garagardo hodietatik 3 zerbeza mota ezberdin dituzte, inolako arazorik gabe. Aterpezain jatorrei nire frantses makalean gaur garagardo dutxa hartzeko aukeraz galdetu diet, baina ez didate ondo ulertzen, "*pas de douche*" edo antzeko zerbait erantzun didate.

Hasierako asmoa zen Aiguille de la Bérangère mendirantz eguna luzatzea, baina "elur afrikarra" baldintza txarretan dago. Gaur ez dago eztabaidarik. "*Quatre grandes bières, s'il vous plaît*". Arratsaldean talde gehiago iritsi dira aterpetxera. Afaldu arteko orduak bakoitzak bere erara xahutu ditu. Britainarrek garagardoa edaten jarraitzen dute. Frantziarrek A.R.V.A. (elur-jausien biktimak bilatzeko aparatua) elurpean ezkutatu on-

doren, ahalik eta azkarren berreskuratzen jolasten dira (emaitzei buruz beste egun batean hitz egingo dugu). Suitzarrak maniobra teknikoak egiten dabiltza sokekin. Gu siestara goaz. Ondoren, Andonik erosi berri duen polea Micro Traxioni buruzko ikastaro magistral bat eman digu. Gelako literetan soka, mosketoi, zinta eta Micro Traxionarekin polea sistema berritzaile bat muntatu dugu. Grabitateaz, inertziatz eta marruskaduraz eztabaida atsegina izan dugu. Mendizaleok burua pixka bat galduta dugula dioen jendeak arrazoia omen du.

LAUGARREN EGUNA: Dômes de Miage

Gaurkoa egun handia da. Dômes de Miagera igotzeko asmoa daukagu. Oso goiz atera gara, elurra berriro izoztuta dago,

ipar-ekialderantz goaz, eta malda nahiko tenteak pasatu ondoren (hortzekin, kranpoiekin) Tré-la-Tête glaziarreko goiko aldera heldu gara. Paisaia bikaina da, eskubiko hormetan dauden *serac* ederez gozatu eta poliki-poliki Col Infranchissablerantz igo gara. Gure aurrean Mont Blanc erraldoia. Ezkerrean Dômes de Miagerako igoera. Malda tentetuz doa, baina gailur-lerroraino eskiekin igo dugu. Gure aurrean gailur zentralerantz doan lerroaren postaleko argazkia dugu, Gaston Rébuffat-en liburuan maitemindu ninduen toki berdinean. Gailur-lerroa oso baldintza onetan dago, izotz gutxi, haizerik ez (haize bortitzarekin ez dut imajinatzen neure burua hortik igotzen) eta aztarna ona dago. Gailurrean mobilarekin hamaika argazki atera ditugu, mozkortuta gaude ikusten dugun paisaiarekin.



ki. Andonik aterpetik 50 metrotara erorketa galanta izan du, berak eta bere po-lea traxionak. Barre ederrak egin ditugu taldeko trebeena ere erortzen dela ikus-tean. Gaur ere aterpean ur korronterik ez dago, beraz garagardoa edango dugu gorputza hidratatzeko.

BOSGARREN EGUNA: Refuge des Conscrits - Euskadi

Gaur gauean Euskadin lo egingo dugu. Refuge des Conscrits-etik goiz jaitsi gara, Mauvais Pas baldintza onetan gurutzatzeko. Elurra oraindik izoztuta dago eta batzuek aterpetik glaziarra jaisten den malda tente samarra kranpoiekin egitea erabaki dugu. Mauvais Pas gaur ere ez dago hain gaizki eta inolako arazorik gabe zeharkatu dugu. Tré-la-Tête aterpetxean eskiak motxilan jarri baino lehen Dani aterpean sartu da ura hartzeko eta Marie-lle agurtzeko. Aterpezainak esan dio jende asko sartzen dela bere aterpean eta ez diotela ezta bon jour ere esaten, aspaldian aterpetxeen xarma galdu omen da.

Parkingearainoko lehenengo zatia eza-gutzen dugu, baso eder batetik jaisten den bide tentea eta ondo markatua. Azkeneko metroak leunagoak dira, eta errepi-dea amaitzen den tokira iritsi gara. Puntu horretatik kotxea utzi dugun tokira 3 km daude. Kotxez doan neska bat nire frantses traketsarekin konbentzitu dut bere kotxean haraino eraman gaitzan. Berrito



Dômes de Miageko dunetan · ARGAZKIA: Daniel Ganuza

denok elkartu ondoren, iturri handi batean dutxa on bat hartu eta bagoaz kotxez eski estazioaren lehenengo eguneko lasag-naren jatetxera. Estazioaren denboraldia gaur amaitzen da eta hori ospatzeko barbakoa handi bat prestatu dute. Gaur ere debaterik ez, denok apuntatu gara ekital-dira. Saltxitxak, bildots-saiheskia, oilasko errea... geuk ere ospatu dugu gure aur-tengo zeharkaldiaren amaiera.

Lyoneko aireporturanzko bidean, Passy herrian, begirada atzean jarri dugu. Hor daude Gaston Rébuffaten Dômes de Miage, Mont Blanc handiaren magalean. Azkeneko argazki bat atera diot nire mendi kuttunari.

ZEHARKALDIAN PARTE-HARTZAILEAK:

Andoni Zugasti, Daniel Ganuza,
Josetxu Arazuri eta Luis Etxeberria.

Jaitsiera festa bat da, nahi dugun tokitik jaitsi gara, eroso, libre...

Trebeagoak direnek, gailur-lerrotik jarraitzen dute mendebaldeko erpine-ra eta jela dezente izaten duen 40 gra-duko malda kranpoiekin jaitsi ondoren, Armancetteko glaziarren bide tekniko samarra erabiltzen dute Les Contam-ines bailarara jaisteko. Etorri garen bide-tik bueltatu gara, eta egia esan asmatu egin dugu. Haize afrikarrak Pirinioetatik Alpeetara beroa ez bakarrik, gure men-dikate kuttuneko elur krema mitikoa ere ekarri digu. Jaitsiera festa bat da, nahi dugun tokitik jaitsi gara, eroso, libre... azken metroak arte. Beheko aldean elur krema *neige pourri* bihurtzen da supitu-

Tré-la-Tête glaziarren goiko aldean · ARGAZKIA: Daniel Ganuza

